

BERTSOLARIAK ORDAINTZEN LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZA 2020

Ipar Euskal Herriko bertsolaritzaren bilakaera baikorrak laguntza behar du oraindik ere. Bertsolarien Lagunak elkarteak arlo desberdinetan sustatzen du honen garapena, izan haur/helduen bertso-eskolak sortuz eta mantenduz, bide berriak asmatuz eta jorratuz edo bertsolarien parte hartzea orokorrean lagunduz.

Azken puntu hau kontuan harturik, bertsolariak bere lanagatik ordaina merezi duela barneratu behar dela uste dugu. Izan ere, gaur egun, ez luke nehork artistarik deituko zenbateko saria eskatzen duen galdegin gabe. Egia da bertsolariak ez duela musika tresnarik edo dekoraturik, baina horrek ez du erran nahi bertsoak ez duenik lanik galdegiten.

Bertsolarien Lagunak Elkarteak eta Euskal Kultur Erakundeak, **bertsolariak ordain duina jaso dezaten** elkarteei eta enpresa ttipiei zuzentzen zaien dirulaguntza esleitzen dugu; hau dirulaguntza soil da, hau da, ez du saioak finantzatzeko helbururik. Horregatik, **ORDAINTZEN LAGUNTZEKO** laguntza dela argi gelditu behar da.

Horretarako, azpian atzemanen dituzun irizpideak bete beharko dira, eta laguntza horren esleitzeko azken hitza Bertsolarien Lagunak Elkarteak izanen du.

Jarraian topatuko dituzu dirulaguntza esleitzeko irizpideak: bai elkarteentzat, bai enpresa ttipientzat.

Elkarteendako irizpideak

Bertsolariak ordaintzen laguntzeko dirulaguntza eskuratzeko irizpideak ondoko hauek dira:

- Dirulaguntza saioaren data baino 4 aste lehenago eskatu beharko da gutienez.
- Dirulaguntza eskuratzeko, kantuan Ipar Euskal Herriko bertsolari bat izan beharko da gutienez.
- Galdean bertsularien izenak agertzeaz gain, saio mota zehaztu beharko da: bertso afaria, saio musikatua, etxez etxekoa (kaxkarot, santa ageda...), libertimendua, kabalkada...
- Antolatzaileak Bertsularien Lagunak Elkartek eta EKEk esleitzen duen kopuru bera esleitu beharko du gutienez. Hau da, elkarteak bertsolari bakoitzeko 100 € emanaz gero antolatzaileak bertsolari bakoitzeko 100 € eman beharko du, jakinez gehieneko kopurua 300 €-koa izanen dela.
- Antolatzaileak Bertsularien Lagunak Elkartearen eta EKEren logoak agerrarazi beharko ditu komunikazio euskarrietan. Irrati bidezko iragarpenetan aipamena egin beharko da.
- Saioa grabatzeko ahalegina egin beharko da eta Bertsularien Lagunak Elkartearen esku utzi.
- Saioaren ondotik, bertsolariek jaso duten kopurua agertzen duen ziurtagiria izenpetu beharko dute, eta antolatzaileak usaiako bidetik (Bertsularien Lagunak – Larralde baserria. Amotze auzoa. 64310 Senpere) edo molde desmaterializatuan (bertsularien-lagunak@wanadoo.fr eta blsustapena@gmail.com) Bertsularien Lagunak Elkarteari helarazi beharko dio.
- Galdea bertsularien-lagunak@wanadoo.fr eta blsustapena@gmail.com helbideetara igorri behar da.

Eskaera egiteko elkarteak bete beharreko agiria zein bertsolariek bete beharko dutena, jarraian:

[DESKARGATU AGIRIAK]

[DESKARGATU LOGOAK: [Bertsularien Lagunak](#) eta [EKE](#)]

Enpresa ttipientzako irizpideak

Bertsolariak ordaintzen laguntzeko dirulaguntza eskuratzeko irizpideak ondoko hauek dira:

- Dirulaguntza saioaren data baino 4 aste lehenago eskatu beharko da gutienez.
- Dirulaguntza eskuratzeko, kantuan Ipar Euskal Herriko bertsolari bat izan beharko da gutienez.
- Galdean bertsularien izenak agertzeaz gain saio mota zehaztu beharko da: bertso afaria, saio musikatua, etxez etxekoa (kaxkarot, santa ageda...), libertimendua, kabalkada...
- Antolatzaileak Bertsularien Lagunak Elkarteak eta EKEk esleitzen duten kopuru bera esleitu beharko du gutienez, jakinez enpresa ttipiei bertsolari bakoitzeko 50 € soilik eta 150 € gehienez esleituko zaiola. Hau da, elkarteak bertsolari bakoitzeko 50 € emanez gero, antolatzaileak Ipar Euskal Herriko bertsolari bakoitzeko 50 € eman beharko du gutienez.
- Antolatzaileak Bertsularien Lagunak Elkartearen eta EKEren logoak agerrarazi beharko ditu komunikazio euskarrietan. Irrati bidezko iragarpenetan aipamena egin beharko da.
- Saioa grabatzeko ahalegina egin beharko da eta Bertsularien Lagunak Elkartearen esku utzi.
- Saioaren ondotik, bertsolariek, jaso duten kopurua agertzen duen ziurtagiria izenpetu beharko dute, eta, antolatzaileak usaiako bidetik (Bertsularien Lagunak – Larraldea baserria. Amotze auzoa. 64310 Senpere) edo molde desmaterializatuan (bertsularien-lagunak@wanadoo.fr eta blsustapena@gmail.com) Bertsularien Lagunak Elkarteari helarazi beharko dio.

Eskaera egiteko enpresa ttipiak bete beharreko agiria zein bertsolariek bete beharko dutena, jarraian:

[[DESKARGATU AGIRIAK](#)]

[DESKARGATU LOGOAK: [Bertsularien Lagunak](#) eta [EKE](#)]